



## PRENTSA OHARRA

Gaur goizean, Juan Antonio Zárate jauna buru izanik, Arabako Biltzar Nagusietako Mahaia bildu da eta eztabaidatutako gai guztien artean, honako hauek nabarmenduko genituzke:

### GALDERAK

**Bidaiarien Garraioa.-** Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu dio Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuari, Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza duten bidaiarien garraiorako linea emakidadunetan txartelen prezioa kontrolatzeari buruz.

Halaber, idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu dio Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuari, Amurrio-Artziniega-Vitoria-Gasteiz lineako txartelen prezioak gutxitu izanari buruz.

### INFORMAZIO ESKAERAK

**Bidaiarien garraioa.-** Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldeak informazio eskaera bat aurkeztu dio Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuari, Arabako Foru Aldundiaren eta errepidean bidaiariak garraiatzeko erabilera orokorreko zerbitzuen enpresa emakidadunen arteko kontratu-programetan sartzen diren erabiltzaile gehiago izateagatiko hobariak aplikatzeari buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 13a

## COMUNICADO DE PRENSA

La Mesa de las Juntas Generales de Álava se ha reunido esta mañana, presidida por D. Juan Antonio Zárate, y ha tratado entre otros asuntos:

### PREGUNTAS

**Transporte de viajeros.-** El Grupo Juntero Socialistas Vascos ha presentado una pregunta para respuesta por escrito, dirigida al Diputado Foral de Obras Públicas y Transportes, sobre el control del precio de los billetes de las líneas concesionarias de transporte de viajeros subvencionados por la Diputación Foral de Álava.

Asimismo, ha presentado una pregunta para respuesta por escrito, dirigida al Diputado Foral de Obras Públicas y Transportes, sobre la reducción del importe de los billetes de la línea Amurrio-Artziniega-Vitoria-Gasteiz.

### PETICIÓN DE INFORMACIÓN

**Transporte de viajeros.-** El Grupo Juntero Socialistas Vascos ha presentado una petición de información, dirigida al Diputado Foral de Obras Públicas y Transportes, sobre la aplicación de las bonificaciones por incrementos de usuarios incluidas en los contratos-programas entre la Diputación Foral de Álava y las empresas concesionarias de transporte regular permanente de viajeros por carretera.

Vitoria-Gasteiz, 13 de julio de 2010